

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOAREN ZERBITZUA

COVID-19a dela eta hartutako premiazko prebentzio-neurriei buruzko alkatearen dekretuak

Ugari eta era askotakoak izan dira hilabete hauetan —COVID-19 koronabirusak sortutako pandemiaren ondorioz— erakundeetatik hartu diren garrantzi handiko erabakiak.

Izan ere, gogoratu beharra dago Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak osasun-larrialdia deklaratu zuela 2020ko martxoaren 13an, eta, hortaz, Euskadiko Babes Zibilerako Plana aktibatu zela eta lehendakariak berreskuratu zuela plan horren zuzendaritza.

Gerora, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua eman zen, zeinen bidez alarma egoera deklaratu baitzen COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko —gerora, martxoaren 17ko Errege Dekretuaren bitartez aldatu zen hori—.

Lau bider luzatu da alarma-egoera; azkenekoz, maiatzaren 8ko 514/2020 Errege Dekretuaren bitartez, 2020ko maiatzaren 24ko 00:00ak arteko indarraldiarekin.

Udal esparruan ere, 2020ko martxoaren 10az geroztik, hainbat prebentzio-neurri ezartzen joan da Gasteizko Udala herritarren osasuna babesteko, COVID-19 koronabirusaren hedapena zela eta, Espainiako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetza ohartarazpenak aintzat hartuta. Neurri horiek alkatearen hainbat dekretutan jaso dira, 2020ko martxoaren 10az geroztik. Era berean, 2020ko maiatzaren 11n, Euskal Autonomia Erkidegoa Osasun Ministerioak landutako Deseskalada Planaren 1. fasera igaro zen egunean, Alkatearen 11. dekretua eman zen, normaltasun berrira igarotzeko lehenengo neurriekin.

COVID-19aren inguruko Alkatearen dekretu guztiak garaiz argitaratu dira udalaren web orrian, eta zabalkundea eman zaie ohiko hedabideetan, eta bertan jasotako neurriak behar bezala egikaritu dira, premiazko izaerarekin. Era berean, udalbatzaren martxoaren 27ko eta apirilaren 24ko ohiko osoko bilkuretan, hartutako neurrien berri eman zen, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124.4.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Nolanahi ere, 463/2020 Errege Dekretua aldatu zuen 465/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren lehen atalean erabaki zen sektore publikoko entitateen prozeduren tramitazioen baldintzak eta epeak etetea, eta delako Errege Dekretuaren indarraldia edo haren luzapenak bukatzean hastea berriro zenbatzen. Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarriaren, berriz, administrazio-bidean errekursoak aurkezteko epeak eteteari buruzko aurreikuspen esplizitua jaso zen.

Nahiz eta dekretu horien edukia administrazio-egintzei dagokiena den, Administrazio Publikoaren Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatzen da administrazioaren egintzak argitaratu beharrekoak direla eskumena duen organoaren iritziz hala eskatzen badute interes publikoaren arloko arazoiek, hala nola, bertan esaten denez, hainbat pertsonari zuzendutako egintza denean, edo, Administrazioaren iritziz, interesdun bakar bati zuzendutako jakinarazpenak denei jakinarazi zaiela bermatzen ez duenean, eta, azken kasu horretan, banakako jakinarazpenaren osagarri izango dela argitalpena.

Alarma-egoera oraindik hainbat astez luza litekeenez, egokitzen jo da gehiago ez atzeratzea ebazpen horiek buletin ofizialean argitaratzea, nahiz eta errekursoak aurkezteko epea ez den zenbatzen hasiko etenaldi hori altxatzen ez den bitartean.

Ez da oraingoan argitara ematen Alkatezaren 10. Dekretua, apirilaren 20koa, zergak ordaintzeko aldien datak eta zatikatzeen epemuga-datak aldatzeari buruzkoa. Dekretu hori 2020ko maiatzaren 6ko 50. zenbakidun ALHAOn argitaratu zen.

Hortaz, Alkatearen dekretu horietan aparteko eta premiazko arrazoiak zirela medio hartzen joan diren neurriek beren eskubide edo interes legitimoak eragin dien pertsona fisiko nahiz juridikoen eskubideak bermatze aldera, eta horren aurrean bidezko diren errekursoak aurkezterik izan dezaten, argitara ematen dira, ALHAOn.

Hauek dira gaurdaino eman diren premiazko dekretuak:

– Alkatearen 1. dekretua, 2020ko martxoaren 10ekoa: premiazko prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko.

– Alkatearen 2. dekretua, 2020ko martxoaren 13koa: premiazko prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko.

– Alkatearen 3. dekretua, 2020ko martxoaren 17koa: premiazko prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko; alarma sanitarioak iraun bitartean udalbatzaren batzordeek izango duten osakerari buruzkoa.

– Alkatearen 4. dekretua, 2020ko martxoaren 18koa: premiazko prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko.

– Alkatearen 5. dekretua, 2020ko martxoaren 25ekoa: premiazko prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko.

– Alkatearen 6. dekretua, 2020ko martxoaren 31koa: premiazko prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko.

– Alkatearen 7. dekretua, 2020ko apirilaren 6koa: larrialdiko kontratazioa COVID-19aren ondoriozko alarma-egoeran.

– Alkatearen 8. dekretua, 2020ko apirilaren 14koa: premiazko prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko.

– Alkatearen 9. dekretua, 2020ko apirilaren 20koa: premiazko prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko; organo kolegiatuaren bilerak egiteko moduari buruzkoa —presentziala ala bideokonferentzia bidez—.

– Alkatearen 10. dekretua, 2020ko apirilaren 20koa: zergak ordaintzeko aldien datak aldatzea. (50. ALHAO, 2020ko maiatzaren 6koa).

– Alkatearen 11. dekretua, normaltasun berrira igarotzeko premiazko prebentzio-neurriak hartzea buruzkoa.

Argitalpen honi erantzen zaizkion Alkatearen dekretuen kontra, administrazio-bidea agortzen baitute, zuzenean aurkez daitezke administrazioarekiko auzi errekurtsioa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, alarma-egoeraren deklarazioa bukatzen den egunaren hurrengo egun baliodunetik (COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria).

Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daitezke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, alarma-egoeraren deklarazioa bukatzen den egunaren hurrengo egun baliodunetik (COVID-19ari aurre egiteko esparru sozial eta ekonomikoko premiazko neurri osagarriak hartu zireneko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege

Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarria) –kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, berriz, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 15ean

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

Eranskina

Alkatearen Dekretua

Premiazko prebentzio-neurriak hartzea,
COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko

Gasteizko Udalak herritarren osasuna babesteko prebentzio-neurri multzo bat abiarazi du, Eusko Jaurlaritzaren erakunde arteko mahaian izan ostean, non zerbitzu eta ekipamendu publikoetan jarraitu beharreko zuzentarauak koordinatu diren. Neurri hauek atzo, martxoaren 9an, udalaren ikastetxeetako jarduera eteteko erabakiari –Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Hezkuntza sailek emandako jarraibideekin bat –gehituko zaizkio.

Toki Arabidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua arabera, beste batzuen artean eginkizun hauek betetzea dagokio alkateari: “b) Udalerriko politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; h) Kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea, eta i) Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea”.

Eskumen horien arabera,

Xedatu dut

Lehena. Prebentzio-neurriak, martxoaren 10etik (asteartea) aurrera aplikatzekoak:

1. Eten egin da gizarte-etxe eta kirol-instalazioetako jarduera, bi zerbitzutan izan ezik: Oinarriko Zerbitzu Sozialetan eta Herritarrei laguntzeko bulegoetan.

2. Eten egin dira aurrez aurreko prestakuntza-jarduerak oro udal-instalazioetan: neurria indarrean da dagoeneko udalaren hezkuntza zentroetan, eta orain zabaldu egin da enpleguaren alorreko prestakuntza zentroetara (CETIC eta Ignacio Ellacuría), eta gizarte-etxe eta adinekoentzako zentro soziokulturaletan eskaintzen diren ikastaro guztietara. Adinekoentzako zentro soziokulturalen kasuan, irekita jarraituko dute gainerako zerbitzuek: jantokia, kafetegia, podologia.

3. Eten egin dira udal-instalazioetan garatzen diren eskola-kiroleko jarduera eta jarduera fisikoko ikastaro guztiak.

4. Jende multzo handiak biltzen dituzten kultur eta kirol jarduerari dagokienez, men egingo zaio Eusko Jaurlaritzak erabakitzen duenari, zenbait parametroren arabera (bertaratutako lagunen kopurua, jarduera egingo den lekua eta lekuaren gehieneko edukiera) kasuak banan-banan aztertu ostean. Neurri hau Udalaren Antzoki Sarean aplikatzekoa da.

5. Eten egin da baita adingabekoentzako zentro sozioedukatioetako jarduera.

Bigarrena. Berriazko neurriak, adinekoei zuzenduriko zerbitzuak sendotzeko:

Gizarte zerbitzuei dagokienez, udalak bere egin du neurrien eguneraketa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzak zentro soziosanitarioei zuzendutako gomendioen arabera. Horren kariaz:

1. Zentroetako erabiltzaileen senideek eta bisitatu dituztenek ezingo dute bisitarik egin sukarra edo arnasketa-sintoma akutuak badituzte. Halaber, senideen bisitak mugatzea gomen-datzen da, pertsona bat paziente ingesatu bakoitzeko. Laguntzaileek ezin izango dute sukarrak edo arnasketa-sintoma akuturik izan.

2. Horrez gain, albait zorrotzen gorde beharko dira eskuen eta arnasketaren higiene-neurriak, bai eta areagotu ere gainazalen garbiketa.

Hirugarrena. Neurriak udalaren giza baliabideen alorrean.

Lana eta familiako bizitza uztartzeko arazo edo oztopoak izanik, ordu-egokitzapena, lizentziak edo baimenak eskatu nahi dituzten Gasteizko Udalaren langileek zerbitziburuen eta sailtako zuzendarien bitartez bideratu behar dituzte banan-banako eskabideak, horiek Udalaren Giza Baliabideen Sailera igorri ditzaten, ohiko bideak baliatuz.

Giza Baliabideen Saila saiatuko da ahalik eta malgutasun handienarekin aplikatzen Gasteizko Udaleko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena, hartara lana eta familiako bizitza uztartzen laguntzeko salbuespeneko neurriak irauten duten bitartean.

Laugarrena. Gasteizko Udalak ulermena eskatzen die familiei ezarritako neurrien aurrean, bai eta Eusko jaurlaritzaren Osasun Sailak igortzen dituen prebentziozko jarraibideei men egiteko ere.

Azken xedapena. Neurri hauek guztiak 2020ko martxoaren 10ean jarriko dira indarrean y martxoaren 23ra arte (egun hori barne) iraungo dute, hargatik eragotzi gabe datozen egunetan neurri gehiago hartzeko aukera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 10ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Alkatearen 2020ko martxoaren 10eko dekretuaren eranskina

1. Dekretuaren 1. artikuluan aipatzen diren udalaren titularitateko hezkuntza-instalazioak, hau da, jarduerak bertan behera uzteak eragiten dien instalazioak, hauek dira:

- Udalaren haur-eskolak:
- Haurtzaro udal haur-eskola.
- Sansomendi udal haur-eskola.
- Zaramaga udal haur-eskola.
- Lourdes Lejarreta udal haur-eskola.
- Zabalgana udal haur-eskola.
- Luis Aranburu Musika Eskola.
- Folklore Akademia.
- José Uruñuela Dantza Kontserbatorioa.
- Arte eta Lanbide Eskola.

Alkatearen 2. Dekretua**Premiazko prebentzio-neurriak hartzea
COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko**

Azken egunotan, hainbat prebentzio-neurri ezarri ditu Gasteizko Udalak herritarren osasuna babesteko, Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetzaren ohartarazpenak aintzat hartuta. Neurri horiek alkatearen 2020ko martxoaren 10eko dekretuan jaso ziren. Hala ere, egoeraren bilakaera dela eta, komenigarria da COVID-19 koronabirusaren hedapena saihesteko neurri berriak hartzea.

Egoeraren premia zela eta, dekretu honetan jasotzen diren neurrietako batzuk dagoeneko iragarri eta aplikatu dira, baina beharrezkotzat jotzen da Alkatezaren erabaki betearazle batean jasotzea, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 36. artikulua ildotik. Hori dela eta, 2. dekretu hau ematen da, aurrekoaren osagarri.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua arabera, beste batzuen artean eginkizun hauek betetzea dagokio alkateari: "b) Udalerriko politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; h) Kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea, eta i) Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea".

Eskumen horien arabera,

Xedatu dut

Lehena. Adinekoentzako zentro soziokulturalekin lotutako neurriak.

Adinekoentzako zentro soziokulturaletako jarduna jantoki-zerbitzura mugatzen da, besterik jakinarazi arte.

Bigarrena. Adinekoei Laguntzeko San Prudentzio Zentro Integrala (ALZI).

Orain arte bezala, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak egoera honetarako une oro ematen dituen jarraibideei jarraituko zaie, bai zentroko langileekin bai egoiliarrekin. Horretarako, langileentzako protokolo espezifiko bat aplikatu behar da, egoiliarrei jarraipen handiagoa egiteko neurriak jasotzen dituena.

Hirugarrena. Garraio publikoaren arloko berariazko neurriak.

1. TUVISAko autobusen eta lantokien garbiketa eta higiena areagotuko da, produktu desinfektatzaileak aplikatuz, eta gel hidroalkoholikoak jarriko dira gidarien postuetan.

2. Langileei prebentziozko informazio guztia ere bidaliko zaie, eta autobusetan Osasun Sailaren gomendio eguneratuak dituzten kartelak jarriko dira.

3. TUVISA etengabe ari da Gasteizko Udaleko Osasun Publikoko Zerbitzuarekin koordinatzen, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saitetik datozen gomendioak betetzearren.

4. Ikastetxeak eta udal instalazioak itxita daudenez, TUVISAk kontziliazio-neurriak, lizentziak eta baimenak ezartzeko aukera aztertuko du, langileen beharrei erantzuteko. Malgutzeko neurriak ere aztertzen ari dira, lanpostuak eta haien beharrak aztertuz, zerbitzua bete ahal izateko.

Laugarrena. Kultur jarduerekin eta bestelakoekin lotutako neurriak.

1. Bertan behera utzi da Udal Antzoki Sarearen jarduera.

2. Bertan behera utzi da Montehermoso kulturuneko jarduera.

3. Funtzioak ahal den guztietan atzeratzeko izapideak egingo dira, baina sarrera eskuratu duten erabiltzaileek zenbatekoa itzultzeko aukera izango dute.

Dagokionean jakinaraziko da noiztik aurrera itzuliko den sarreren zenbatekoa.

4. Bertan behera uzten diren ikuskizunak ematekoak ziren konpainiekin egindako kontratuei dagokienez, izapidetze administratibo bakoitza berrikusiko da, bai arte eszenikoen sektorea- rentzat bai udalaren interes publikoarentzat ahalik eta kalte gutxien sortzen duten neurriak aplikatzeko.

Bosgarrena. Biltzar izaerako ekitaldi publikoekin lotutako neurriak (Europa jauregian eta Goiuri jauregia).

1. Bertan behera geratzen dira honako ekitaldiak:

– II. HANUP (haur eta nerabeentzako udal plana).

– Musika Bulegoa sariak 2020.

– Fabio Baggiren "Etorkinak eta errefuxiatuak, bizikidetza eta herritartasun sortzaileak" hitzaldi-solasaldia.

– Plan Biko lantegia.

– Startup Europe Week.

– EUDELen prestakuntza jardunaldiak: kontratazio publikoari buruzko araudiak EAEko udalentsat.

– 2020ko Etxe Berdeak programaren aurkezpena.

– EH BILDUren hauteskunde-kanpainaren hasiera.

– UAGAre biltzar orokorra.

– AVANZA lanbide heziketaren azoka.

– Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari buruzko parte-hartze Saioa.

2. Atzeratu egiten dira honakoak:

– Psikiatrian eguneratzeko jardunaldiak (irailera).

– Dermatologiako Espainiako Akademiaren Euskal Herriko eta Aragoiko atalaren bilera (azarora).

– Gasteiz On elkartearen udaberri-udako desfilea (apirilera).

– Hiretu Hiria gala (maiatzera).

3. Turismo-bulegoa. Irekita egongo da, eta ohiko arreta emango da, baina bertan behera gelditzen dira bisita gidatuak hirian zehar.

4. Nolanahi ere, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren jarraibideak betez, bertan behera geratzen dira jarduera kolektiboak, 1000 pertsonatik gorako edukiera duten espazio itxietan. Jarduera horiek edukiera txikiagoko espazioetan egiten badira, edukieraren heren bat bete ahal da bakarrik

Seigarrena. Udalean ezkontzearekin lotutako neurriak.

1. Udaletzeko bulegoetara sartu ahal izango diren pertsonen gehieneko kopurua ez da, inolaz ere, 50 lagunetik gorakoa izango, bi aretotan banatuta: harrera aretoa eta Kinten aretoa.

2. Aretora modu ordenatuan sartuko da, protokoloko langileek adierazitakoa betez.

3. Bertaratu guztiek gutxienez metro bateko tarte utzi beharko dute beraien artean.

4. Agur amultsuak saihestuko dira.

5. Egoera berezi honen ondorioz ezkontza bertan behera uzten bada, eskatzaileei itzuli egingo zaie dosierra izapidetzean ordaindutako tasa.

6. Udalaren egutegian libre dagoen beste data batera ere atzeratu ahalko da ezkontza-data; horrela eginez gero, tasa atxiki egingo da, eta izapideak ahal den neurrian errazteko ahalegina egingo da.

Zazpigarrena. Gogorazpena: ostalaritzan elikagaiak erakustea.

Elikagaiak ez dira koronabirusa transmititzeko bide edo iturri gisa identifikatu izan. Hala ere, Gasteizko Udaleko Osasun Publikoko Zerbitzuak ostalaritza-sektoreari gogorazten dio oso garrantzitsua dela higie- eta osasun-arauak betetzea, edozein birus-mikroorganismo edo haren toxinak elikagaien bidez transmiti ez daitezen.

Gasteizko Udaleko Osasun Publikoko Zerbitzuak aldizka ikuskapen higieniko-sanitarioak egiten ditu elikagai-establezimenduetan, besteak beste ostalaritza-establezimenduetan. Pintxoak babestea nahitaezko neurria da, eta horretan eragingo dute ikuskapenek, elikagaien higieneari buruzko gainerako neurriekin batera.

Ikuskapenean ez-betetze bat hautematen bada, administrazio-dosiera irekiko da.

Zortzigarrena. Giza baliabideen arloko neurriak.

1. Giza Baliabideen Sailari eskatu egiten zaio, beharrezko kudeaketak egiten jarraitzeko, udaleko gainerako sailekin koordinatuta, telelana jartzeko nahitaez fisikoki bere lanpostuan egon beharra ez duten udal langileei.

2. A eta B taldeen enplegu-eskaintza publikoko langile berriak:

Udalan praktikan apirilaren 1ean hasi behar zutenei 2020ko maiatzaren 13ra aldatu zaie data.

Azken xedapena

1. 2020ko martxoaren 11tik martxoaren 23ra arte (biak barne) egongo dira indarrean neurri hauek, nahiz eta hurrengo egunetan neurri gehigarriak ere har litekeen.

2. Gaurdaino hartutako neurriek, dekretu honetan jasotzen direnekin bateragarri direnek, indarrean jarraituko dute 2020ko martxoaren 23ra arte, egun hori barne. Bateragarri ez direnak bertan behera geratuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 13an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Alkatearen 3. Dekretua

Premiazko prebentzio-neurriak hartzea
COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko

Udalbatzaren batzordeen osaera osasun alarmaren aldi.

2020ko martxoaren 14ko BOEn (67. zenbakia) argitaratu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez alarma egoera deklaritzen baita COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko.

Errege dekretu horretan hainbat neurri ezartzen dira pandemiari aurre egiteko, besteak beste, pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatzeko neurri garrantzitsuak; horietaz gain, azken egunetan beste neurri batzuk hartu dira hainbat instantzian pertsonen bilerak eta metaketak ahalik eta gehien eragozteko, espazio irekietan eta batez ere espazio itxietan.

Udal antolakuntzari dagokionez, talde politikoak bat datoz ahalik eta gehien murriztu behar direlakoan batzorde eta osoko bilkuren deialdiak eta, deitzea ezinbestekoa bada, presentzia fisikoa mugatu behar delakoan, ez baitugu bitarteko teknikorik bilerak urrutitik egin ahal izateko.

Hori dela eta, Eledunen Batzarrak 2020ko martxoaren 7an egindako bilkuran aho batez erabaki zen ezen, aparteko egoera honek irauten duen bitartean, gai-zerrendan ebatzi beharreko gaiak dituzten batzordeak baino ez direla deituko eta egingo. Orobat erabaki zen ezen, batzorderik deituz gero, zinegotzi bakarra joango dela talde politiko bakoitzetik, eta boto haztatuz baliatuko dela, alegia, talde bakoitzaren ordezkari bakarraren botoa taldeak dena delako batzordean duen zinegotzi kopuruaren bestekoa izango da.

Hau xedatzen du Udalbatzaren Araudi Organikoaren 126. artikulua:

“Hauek osatuko dituzte Udalbatzaren batzorde iraunkorrak: lehendakari eta lehendakariorde banak –batzordekideek berek beren artetik hautatu eta udalbatzako lehendakariak izendatuak–, udal talde guztien batzordekideek –Udalbatzak erabakiko du kopurua, kasuan kasu, talde bakoitzak udalbatzan duen ordezkariaren arabera– eta Udalbatzako idazkariak edo hark ordezkari izendatzen duen Idazkaritza Nagusiko funtzionarioak.”

2019ko ekainaren 28ko osoko bilkuran hartu zen Udalbatzaren batzorde iraunkorrak eratzeko erabakia. Horren arabera, bederatzi batzorde iraunkorretako bakoitzak 15 kide izango ditu, honela banatuta:

- EAJ-PNV taldea: 4
- PSE-EE taldea: 3
- EH Bildu Gasteiz taldea: 3
- PP taldea: 3
- Elkarrekin Vitoria-Gasteiz taldea: 2

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124 artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateari dagokio, besteak beste, “b) udal politika, gobernua eta administrazioa zuzentzea; dena den, Tokiko Gobernu Batzarraren laguntza izan dezake zuzendaritza politikoan; eta bereziki, “h) larrialdi egoera berezietan neurri egoki eta beharrezkoak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea”.

Eskumen horien arabera,

Xedatu dut

Lehena. Udalbatzaren batzorde iraunkorren osaera osasun alarmaren egoerak irauten duen bitartean.

Osasun alarmaren egoerak irauten duen bitartean, ebatzi beharreko gai atzeraezinak aztertzeko diren udalbatzaren batzorde iraunkorrak baino ez dira deituko.

Epe horretan, bost kidek osatuko dituzte batzorde iraunkorrak: bat udal talde politiko bakoitzeko, batzordeburua, eta idazkaria, edo haien legezko ordezkariak. Gairen bat bozkatu beharra dagoenean, bertan dagoen zinegotzi bakoitzaren botoa bere taldeak batzorde horretan duen zinegotzi kopuruaren baliokidea izango da, 2019ko ekainaren 28an Udalbatzak hartutako erabakiari jarraituz.

Horrenbestez:

- EAJ-PNV taldea: boto bakarra 4 botoren baliokidea izango da.
- PSE-EE taldea: boto bakarra 3 botoren baliokidea izango da.
- EH Bildu Gasteiz taldea: boto bakarra 3 botoren baliokidea izango da.

– PP taldea: boto bakarra 3 botoen baliokidea izango da.

– Elkarrekin Vitoria-Gasteiz taldea: boto bakarra 2 botoen baliokidea izango da.

Eztabaidetan parte hartzen ez badu ere, batzordeburuak eman beharko du bere talde politikoari dagokion boto haztatua, eta horretaz gain, kalitatezko botoa izaten jarraituko du.

Bigarrena. Batzordeen asistentzia-quoruma.

Batzordea balio osoz eratzeko Udalbatzaren Araudi Organikoaren 132. artikuluan xedutakoari jarraituko zaio, baina bertaraten diren zinegotzien kopurua kontuan hartu beharrian, horiek ordezkatzan dituzten botoen kopurua hartuko da kontuan.

Hirugarrena. Udaleko osoko bilkurak.

Osasun alarmaren egoerak irauten duen bitartean, ebatzi beharreko gai atzerazinak baino ez dira aztertuko osoko bilkuretan.

Epe horretan, osoko bilkurak Goiuri jauregiko Martin de Salinas aretoan egingo dira, bertaratu artean osasunaren arloko agintariek ezarritako gutxienezko distantzia gorde dadin une oro.

Bilkuretara ezingo da Udalbatzatik kanpoko pertsonarik sartu, baina saioak zuzenean emango dira internetez, eta geroago grabazioak eskuragarri egongo dira.

Laugarrena. Eledunen Batzarrak 2020ko martxoaren 17an proposatu eta onetsitako neurri hauek egiten duen hurrengo bilkuran jakinaraziko zaizkio ofizialki Udalbatzari.

Azken xedapena. Dekretu hau dataren egunean jarriko da indarrean, baina baliteke maila bereko edo goragoko beste erabaki eta neurri batzuk hartzea bilerak deitzeari oro har edo kide anitzeko administrazio-organoen bilerak deitzeari bereziki dagokionez.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 17an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Alkatearen 4. Dekretua

Premiazko prebentzio-neurriak hartzea,
COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko

Azken egunotan, hainbat prebentzio-neurri ezarri ditu Gasteizko Udalak herritarren osasuna babesteko, Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetzaren ohartarazpenak aintzat hartuta. 2020ko martxoaren 10eko eta 13ko Alkatearen dekretuetan jaso ziren neurri horiek.

Aldi berean, 2020ko martxoaren 14ko BOEn (67. zenbakia) argitaratu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, zeinen bidez alarma egoera deklaritzen baita COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko.

Egoera sanitarioaren bilakaera arin eta aldakorrek neurri osagarriak hartzera behartzen du, lehengoz gain, eta, hori dela eta, aurrekoen osagarri den laugarren dekretu hau ematen da.

Hainbat arlotako neurriak jasotzen dira dekretu honetan, etxebizitzarik eza artatzen duten zerbitzuetatik hasi eta ogasunera arte. Bereziki, zergei dagokienez, zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 25. artikuluan, "Egutegi fiskala" izenburupean, aldian behin ordaindu beharreko diru-sarreraren epeak zehazten dira. Bizi ditugun aparteko zirkunstantzien aurrean, 2020ko ko-brantza-aldiaren hasiera- eta bukaera-datak, kasuan kasu, atzeratu eta aldatzea erabaki da, lehen artikuluan adierazten den moduan aldatu ere.

Egoeraren premia zela eta, dekretu honetan jasotzen diren neurrietako batzuk dagoeneko iragarri eta aplikatu dira, baina beharrezkotzat jotzen da Alkatetzaren erabaki betearazle batean jasotzea, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 36. artikulua ildotik. Hori dela eta, 4. dekretu hau ematen da, aurrekoen osagarri.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua arabera, beste batzuen artean eginkizun hauek betetzea dagokio alkateari: “b) Udalerriko politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; h) Kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea, eta i) Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea”.

Orobat ikusirik zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarreraren lokalaren kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 25. artikuluan xedatua, hau

Xedatu dut

Lehen. Gasteizko Udalaren aldiaren aldiaren diru-sarreraren ordainketa-aldiak luzatu eta aldatzea.

Diru-sarrera hauek ordaintzeko 2020ko egutegi fiskala aldatzen da, ondoren xedatzen den moduan:

1. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kobrantza-aldia irailaren 15era arte luzatzen da.

2. Kobrantza-aldiaren hasiera- eta bukaera-data berriak ezartzen dira, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari eta zerrendatzen diren tasa eta diru-sarrerei dagokienez:

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	Maiatzaren 15etik irailaren 15era
Hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa	Maiatzaren 15etik irailaren 15era
Mahaitxoaren tasa	Ekainaren 1etik irailaren 15era
Industria-isorketen tasa	Maiatzaren 15etik uztailaren 15era
Hilerriak zaintzeari dagokion tasa	Maiatzaren 15etik uztailaren 15era
Ibilgailuak eraikin partikularretara sartzeari dagokion tasa (pasabideak); lehen seihilekoa	Maiatzaren 15etik uztailaren 15era
Kontsezioak (sei hilean behin ordaintzekoak)	Maiatzaren 15etik uztailaren 15era

3. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa epeka ordaintzea — ordenantza orokorraren 70.7 artikuluan aurreikusitako aukera — kobrantza-aldi berrira moldatuko da.

Bigarrena. Etxebizitarik eza artatzen duten zerbitzuen inguruko neurriak.

1. Etxerik ez dutelako kalean bizi diren pertsonak udalak eta Gurutze Gorriak duela bi urte Pio Baroja ikastetxean prestatu zuten iragaitzako migratzaileen zentrori bideratuko dira, gaur egun hutsik baitago eta etzauntzak eta dutxak baititu bertako gimnasioak.

2. Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailak banatu egingo ditu Aterpeko erabiltzaileak, zerbitzu horren eta garai bateko Arkupeetako egoitzaren artean, bertan logelak eta jantoki-zerbitzua baitaude.

3. Aterpea eta neguan ostatu emateko bitartekoa baliatzen duten pertsonak baliabide horietan geratu ahal izango dira egunez, eta bazkariak emango zaizkie bertan.

Hirugarrena. Adinekoentzako jantokien inguruko neurriak.

1. Ezarritako segurtasun-neurriak betetzerik izan dadin, bihartik, bertan behera geratuko da adinekoentzako zentro soziokulturaletako jantoki-zerbitzua.

2. Jantoki-zerbitzua erabiltzen zuten pertsona guztiek alternatiba bat eduki beharko dute, elikadurari dagokienez. Antzemandako pertsona ahulek, alternatibarik ez badute, etxean jasoko

dute janaria. Gurutze Gorria arduratuko da banaketaz, bi egunean behin egingo baitu, hotza gordetzen duten ibilgailuekin.

Laugarrena. TAO bertan behera uztea.

1. 2020ko martxoaren 16tik aurrera, bertan behera geratuko da lurrazaleko aparkaldi mugatuko zerbitzua (TAO), besterik adierazi bitartean.

2. Ondoriorik gabe geratuko da Geltoki plazaren eta Aldabeko gizarte-etxeko aparkalekuaren erregulazioa. Zerbitzua emateari utziko diote, beraz, txartelak saltzeko makinek. Zaintzaileek ez dituzte beren ohiko zereginak burutuko.

Bosgarrena. Garbiketaren arloko neurri bereziak.

1. Bide publikoa nahiz udal eraikin eta instalazioak garbitzen dituzten garbiketa-zerbitzuek bioalkohola duten produktu desinfektatzaileak erabiliko dituzte, eta garbikari bereziak.

2. "Birziklagunea" zerbitzua ixtea erabaki da. Garbigunea irekita egongo da.

3. Udalerriko garbiketako eta hondakinen bilketako zerbitzuek normaltasunez jarraituko dute funtzionatzen, lehendik hartutako prebentzio-neurriekin jarraituz, ahalik eta gehien murrizteko enpresaren barruan kutsatzeko arriskua.

Horretarako, sarrera-txanda sekuentziatuak ezarriko dira aldageletan, eta taldeetan edo leku itxietan egotea ekidin beharko dute langileek. Lan-txanda bakoitza bukatzean, ahalik eta denborarik gutxien erabili beharko dute langileek lantokitik alde egiteko, eta ahalik eta distantziarik handiena mantendu beren artean.

Seigarrena. Udal langileen telelan-sistemaren garapena.

1. Gasteizko Udaleko ahalik eta langile gehienek telelanaren modalitatea baliatu ahal izateko beharrezko diren neurriak ezarriko dira, Giza Baliabideen Sailaren eta Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Sailaren arteko lankidetzaren delako medio, azken hori ari baita hori posible izan dadin beharrezko den euskarri teknologikoa eskaintzen.

Zazpigarrena. Aldaketak udal azoketan.

1. Bertan behera geratuko dira Lakuako eta Simon Bolibar plazako azokak, besterik adierazi bitartean.

2. Irekita mantenduko da Santa Barbara plazako ekoizleen azoka produkturik dagoen bitartean, premia-premiazko produktuen banaketan diharduenez.

Azken xedapena

1. 2020ko martxoaren 16tik egongo dira indarrean neurri hauek, nahiz eta hurrengo egunetan neurri gehigarrik ere har litekeen.

2. Gaurdaino hartutako neurriek, dekretu honetan jasotzen direnekin bateragarri direnak, indarrean jarraituko dute. Bateragarri ez direnak, bertan behera geratuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 18an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Alkatearen bosgarren Dekretua**Premiazko prebentzio-neurriak hartzea
COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko**

Azken egunotan, hainbat prebentzio-neurri ezarri ditu Gasteizko Udalak herritarren osasuna babesteko, Espainiako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetzaren ohartarazpenak aintzat hartuta. Neurri horiek alkatearen 2020ko martxoaren 10eko, martxoaren 13ko eta martxoaren 18ko dekretuetan jaso ziren.

Aldi berean, 2020ko martxoaren 14ko BOEn (67. zenbakia) argitaratu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, zeinen bidez alarma egoera deklaritzen baita COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko.

Egoera sanitarioaren bilakaera arin eta aldakorrek neurri osagarriak hartzera behartzen du, lehengoz gain, eta, hori dela eta, aurrekoen osagarri den bosgarren dekretu hau ematen da.

Dekretu honen neurri nagusia aplikatzen ari diren neurrien epeak luzatzea da, hain zuzen ere Alkatearen 2020ko martxoaren 10eko dekretuaren arabera 2020ko martxoaren 23ra artekoak zirenak. Duela gutxi Ministro Kontseiluak iragarri duenez, kongresuari alarma egoera 2020ko apirilaren 11ra luzatzeko baimena eskatzeko asmoa du, eta segur aski, baimena gauzatu egingo da datozen egunotan. Egoera hori dela eta, gomendagarria da Gasteizko Udalak ere hartu dituen neurrien iraupena luzatzea, salbuespenezko egoerak iraun bitartean.

Aurreko erabakietan adierazi genuen bezala, egoeraren premia zela eta, dekretu honetan jasotzen diren neurrietako batzuk dagoeneko iragarri eta aplikatu dira, baina beharrezkotzat jotzen da Alkatearen erabaki betearazle batean jasotzea, Administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 36. artikulua ildotik. Hori dela eta, 5. dekretu hau ematen da, aurrekoen osagarri.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua arabera, beste batzuen artean eginkizun hauek betetzea dagokio alkateari: "b) Udalerriko politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; h) Kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea, eta i) Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea".

Xedatu dut

Lehena. Orain arte hartutako prebentzio-neurrien iraupena luzatzea.

Indarrean jarraituko dute udalak COVID-19aren eragina murrizteko orain arte hartutako prebentzio-neurriak (2020ko martxoaren 23an indarrean zeudenak), Espainiako Gobernuaren alarma-egoera edo Eusko Jaurlaritzaren osasun-larrialdiko deklarazioa mantentzen diren bitartean, salbu eta etorkizunean neurri horiekin bateragarriak ez diren beste batzuk ematen badira.

Bigarrena. Bide publikoa desinfektatzeko neurriak.

1. Orain arteko garbiketa-neurri bereziekin jarraituko da, eta indartu egingo dira bide publikoa eta hirian jenderik gehien izaten duten gunek desinfektatzeko neurriak, udaleko 15 garbiketa-taldeek osatutako bi txandekin.

Langileek, ihintzatzeko desinfekzio ekipoz eta norbera babesteko ekipamendu bereziz horniturik, etengabe egingo dute lan, bi txandatan, goizeko 6:30etik gaueko 10ak arte.

2. Bereziki arituko da leku hauetan: ospitale eta osasun zentroen kanpoaldea, janari denden eta dekretuz irekitako saltokien ingurua, autobus eta tranbia markesinak, edukiontzi-irlak, garrario publikoko geltokiak eta jendea dabilen beste leku batzuk.

Hirugarrena. Doako aparkalekuak Osakidetzako langileentzat.

1. Osakidetzako langileei baimena ematen zaie Santa Barbara plazako lurpeko aparkalekuak eta Autobus geltokikoak doan erabiltzeko.

Aparkaleku horiek doan erabiltzeko nahikoa izango da Osakidetzako langileak direla egiaztatzen duen agiria erakustea (bai osasun arloko langileak bai gainerako arloetakoak).

Laugarrena. Lakua-Arriagako karabanentzako aparkalekua ixtea.

1. Lakua-Arriagako karabanentzako aparkalekua ixtea erabaki da.(Forondako atean)

Bosgarrena. TUVISAko zerbitzuak berrantolatzea.

1. TUVISAren zerbitzuak berrantolatzea erabaki da, osasun-larrialdiak eragindako konfinamendu egoeraren ondorioz izandako erabilera-jaitsiera handira egokitzeko.

2. Ordutegi berriak Gasteizko Udalaren webgunean argitaratuko dira.

Seigarrena. Debekatuta merkataritza-lokalen kanpoan elikagaiak erakustea.

1. Debekatuta dago merkataritza-aretoen kanpoaldean edozein elikagai-mota erakustea. Hori dela eta, areagotu egingo dira informazio-, kontrol- eta zehapen-neurriak, debeku hori zorrotz bete dadin.

2. Agintari eskudunak uste badu jarduteko baldintzak direla eta establezimenduren batek kutsatzeko arriskua duela horren jarduera etengo du.

3. Osasun Publikoaren Zerbitzuak gogorarazi nahi du txikizkako elikadura-saltokiaren jabearen erantzukizuna dela jende-metaketak eragozte eta kontsumitzaileek eta langileek gutxienez metro eta erdiko tartea errespetatzen dutela kontrolatzea.

Jendeak premiazko elikagaiak eta produktuak erosteko behar duen denbora baino gehiago ezin du igaro establezimenduen barruan.

Zazpigarrena. Udalaren Haur-eskolak.

1. Murriztu egingo da udalaren haur-eskoletako martxoko kuota, baita jarduera etenda egon den denborako gainerakoak ere, jarduera etenda egon den aldiari dagokion proportzioan.

2. Udalaren haur-eskolei gurasoentzako laguntza-planak egiten jarraitzeko eskatzen zaie, egungo egoera hobeto eraman ahal izateko. Ildo horretatik, seme-alabak estimulatzeko materialak eta konfinamendu-aldirako gomendioak ematen saiatuko dira.

Azken xedapena

1. 2020ko martxoaren 24tik egongo dira indarrean neurri hauek, nahiz eta hurrengo egunetan neurri gehigarriak ere har litekeen.

2. Gaurdaino hartutako neurriek, dekretu honetan jasotzen direnekin bateragarri direnek, indarrean jarraituko dute. Bateragarri ez direnak bertan behera geratuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 25ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Alkatearen 6. Dekretua

Premiazko prebentzio-neurriak hartzea,
COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko

Azken asteotan, hainbat prebentzio-neurri ezarri ditu Gasteizko Udalak herritarren osasuna babesteko, Espainiako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetzaren ohartarazpenak aintzat hartuta. 2020ko martxoaren 10eko, 13ko (bi), 18ko eta 25eko Alkatearen dekretuetan jaso ziren neurri horiek.

Aldi berean, 2020ko martxoaren 14ko BOEn (67. zenbakia) argitaratu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, zeinen bidez alarma egoera deklaritzen baita COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko —gerora, martxoaren 17ko Errege Dekretuaren bitartez aldatu zen hori—. Alarma-egoera luzatu egin da, Gobernu Kontseiluaren eskariz eta Kongresuaren osoko bilkurak baimenduta, apirilaren 12ko —igandea— gauerdira arte.

Era berean, igande honetan argitaratu delarik 10/2020 Errege Lege Dekretua, zeinen bitartez berreskuratu beharreko baimen ordaindua arautzen baita, funtsezko zerbitzuetan ez diharduten besteren konturako langileei aplikatzeko, hartara COVID-19 gaitzaren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna mugatu ahal izateko, Gasteizko Udaleko Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkariak 2020ko martxoaren 12an arlo horretan hartutako aparteko neurriak osatu beharra dago, komunitatearentzat funtsezko diren zerbitzuen funtzionamendua eta udal langileen babesa bermatzeko. Besteak beste, udalean funtsezkoak diren zerbitzuak ezartzen dira, hartara langileen mugikortasuna al bait gehien mugatzen laguntzeko. Era berean, baimen izaera ematen zaio etxean egotearen egoerari, dekretuaren artikuluetan zehazten diren baldintzekin.

Esparru ekonomikoan ere ezinbestekoa da neurri berriak hartzea, hala nola ostalaritzako mahaitxoaren tasaren ordainketa bertan behera uztea eta hornitzaileei egiten zaizkien ordainketak bizkortzea. Neurri horiek, azken asteetan hartutakoei gehitzen zaizkielarik, familien eta enpresen likidezia ahalbidetu nahi dute, krisi-egoera honen aurrean.

Hilerrietako jarduerari dagokien ere hartu dira neurri berriak, Osasun Ministerioaren martxoaren 29ko SND/298/2020 Aginduaren ildotik, horren bitartez ezarri baitziren beila eta hileta-zeremonien inguruko salbuespeneko neurriak, COVID-19a zabaldu eta kutsatzea ekiditeko.

Aurreko akordioetan adierazi bezala, egoeraren premia zela eta, dekretu honetan jasotzen diren neurrietako batzuk dagoeneko iragarri eta aplikatu dira, baina beharrezkotzat jotzen da Alkatetzaren erabaki betearazle batean jasotzea, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 36. artikulua ildotik. Hori dela eta, 6. dekretu hau ematen da, aurrekoen osagarri.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua araberak, beste batzuen artean eginkizun hauek betetzea dagokio alkateari: "b) Udalerriko politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; h) Kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea, eta i) Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea".

Xedatu dut

Lehena. Gasteizko Udalaren zerbitzuen funtzionamendua, 10/2020 Errege Lege Dekretuarekin bat etorritik.

1. Udal zerbitzu hauen erabateko funtzionamendua mantentzen da: Udaltzaingoa, suhiltzaileak, gizarte-zerbitzuak, hilerriak, garbiketa eta hondakinen kudeaketa, hornitzaileei ordaintzea eta kontratazioa, osasun publikoa, ur-hornidura eta -arazketa, laneko arriskuen prebentzioa eta herritarrentzako telefono bidezko arreta.

2. Esparru hauetan, gutxienezko zerbitzuak mantenduko dira: Udalbatzaren Idazkaritza Nagusia, Kontu-hartzailetza Nagusia, administrazio orokorreko teknikariak, garraio publikoa, enpresentzako orientabidea, giza baliabideak, Erabiltzaileei Laguntzeko Zentroa eta Udalaren

sistema informatikoaren euskarria, udal eraikinak mantentzeko lanak, gizarte etxeak, trafikoa eta autobus-geltokia.

Bigarrena. Gasteizko Udalaren mendeko lantokietako giza baliabideen arloko neurriak.

1. Adingabeak beren kargura dituztenengana ez ezik adinekoak beren kargura dituztenengana ere zabaltzen da familia-kontziliazioa, aukeran harturik bai lanaldi-malgutasuna, bai Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan nahiz lan-baldintzak arautzen dituen akordioan jasotako neurriak, hilaren 12ko ebazpenean jasotako baldintzekin.

2. Udal langileen lan-eremuari eta lan-zereginei dagokionez, telelan-aukerak zertu dira, funtsezko zerbitzuetarako eta ahal den neurrian.

Zerbitzua funtsezkotzat katalogatu ez den kasuetan, baita lantokiak itxi diren edo eman beharreko zerbitzuak murriztu diren kasuetan ere, etxean egotearen egoerak baimen ordaindu berreskuragarriaren izaera izango du, eta gerora berreskuratuko dira baimen horrek iraun bitartean eskaini ez diren orduak, 10/2020 Errege Lege Dekretuaren ildotik, zeinen bitartez berreskuratu beharreko baimen ordaindua arautzen baita, funtsezko zerbitzuetan ez diharduten besteren konturako langileei aplikatzeko, hartara COVID-19 gaitzaren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna mugatu ahal izateko.

Goian adierazitako egoeran dauden pertsonak, gainerako funtzionarioak bezala, udalaren esanetara egongo dira, eta, behar izanez gero, edozein zereginetarako deitu ahal izango zaie, baita edozein sail, zerbitzu edo ataletako zerbitzuak indartzeko ere. Horregatik, sailek salbuespenezko izaerarekin egiten duten giza baliabideen kudeaketa Giza Baliabideen Sailarekin koordinatuta eta haren zuzendaritzapean egingo da.

Osasun Ministerioaren protokoloaren ildotik, aurrez aurreko arretatik salbuetsita geratzen dira bertan ahultzat definitutako pertsonak. Dituzten patologien arabera arriskurik ez dakarten zerbitzuak eskaini edo zereginak indartu ahal izango dituzte pertsona horiek. Osasun Ministerioaren protokoloan adierazitako zirkunstantziak eragindako langileak berak aurkeztu beharko ditu. Egungo pandemiaren fasea gainditu ondoren eskatu ahal izango da horiek egiaztatzeko.

3. Funtsezkotzat definitu diren zerbitzuen eskaintza bermatu egin beharko da. Horregatik, bertan behera geratzen dira, eta ukatu ahal izango dira, horiek eskaintzeaz zuzenean arduratzen diren pertsonen baimenak, lizentziak nahiz oporrak. Era berean, txandak ezarri ahal izango dira, langileen artean, edo behar diren errefortzuak egiteko deitu ahal izango zaie.

Zerbitzuak eskaintzen direla bermatzeak, beren lanpostuko eskumenengatik dagokien pertsonak ez ezik, organizazioa osatzen duten pertsona guztiak inplikatzeko ditu. Beraz, zerbitzu publikoaren bokazioari erantzunez, beharrezko diren funtzio eta zereginak egiteko deitu ahal izango zaie. Horregatik, larrialdi sanitarioaren egungo egoerak iraun bitartean, funtzionario eta lan-itunpeko langile guztiak Giza Baliabideen Sailari atxikita egongo dira.

Era berean, antolakuntza-arrazoak direla eta, egungo egoera bukatzean ezinbestean iritsiko den lan-pilaketaren aurrean, lan-baldintzak arautzen dituen akordioan ezarritakoaren ildotik, langileen oporren erdiaren gozamina antolatu ahal izango da, edo hemen ezarritako helburuak betetze aldera beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen den beste edozein neurri hartu.

Enpresa Batzordeari eta Langileen Batzarrari eman zaie hartutako neurri horien berri, eta, negoziatu ondoren, funtsezko zerbitzuak eskaintzeko beharrezko diren gutxieneko langileak eta egin litezkeen errotazioak ezarri dira.

4. Babes sanitarioako materiala: babes sanitarioako materialaren hornikuntza eta erreserbak ziurtatzen jarraituko da, baita norbera babesteko ekipamenduak ere, beren lan-jardunean segurtasuna bermatzeko halakorik behar duten langileentzat.

5. Neurri hauek inplementatu eta martxan jar ditzatela agintzen zaie sailei.

Hirugarrena. Ekonomikoaren arloko neurriak.

1. Ostalaritzako terrazak: Bertan behera geratzen dira, aldi baterako, Gobernuak dekretutako alarma-egoerak iraun bitartean, Gasteizko udalerrriaren barruan terrazak instalatzeko gaitzen duten lizentziak oro, Gasteizko Udalaren Ostalaritza establezimendu publikoetako terrazak arautzeko ordenantzaren 12. artikulua aplikatzearen ondorioz, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Era berean, bertan behera geratzen da jabetza publiko lokalaren erabilera pribatibo eta us-tiapien bereziagatik ordaindu beharreko tasaren likidazioa eta, hortaz, zerga-kuota ordaintzeko obligazioa, eragindako ostalaritzako eta jatetxeetako terrazen instalazioari dagokionez, horiek instalatzeko baimena etenda geratzen den epean.

3. Hornitzaileei ordaintzea: hornitzaileei egin beharreko ordainketak arintzea erabaki da, modu honetan:

- 11.539.152 euro, zerbitzuak hornitzen dituzten hainbat enpresa eta organizaziori dagozkie;
- 866.921,78 euro, gizarte-larrialdiko laguntzei eta pertsona eta familia ahulentzako udal laguntzei dagozkie.

4. Itzulketak: Era berean, bertan behera utzitako jardueren prezioari dagokion zenbatekoa ordainduko zaie Principal antzokiaren erabiltzaileei, guztira 124.412,35 euro.

Laugarrena. Hilerrien arloko neurriak.

1. Sarrera-muga bat ezartzen da, gehienez hiru pertsona joan ahal izango baitira Gasteizko hilerrietan egiten diren ehorzketetara, eta gainerakoan itxita egongo baitira. Bertaratzen direnek debekatuta edukiko dute hilkutxa ukitzea, eta, beti ere, gutxienez 1,5 metroko distantzia errespetatu beharko dute, beren artean eta udal langileengandik.

2. Gasteizko Udalaren webgunearen bitartez emango dira jakitera ordutegi berriak.

Azken xedapena

1. 2020ko martxoaren 30etik egongo dira indarrean neurri hauek, nahiz eta hurrengo egunetan neurri gehigarriak ere har litekeen.

2. Gaurdaino hartutako neurriek —dekretu honetan jasotzen direnekin bateragarri direnek— indarrean jarraituko dute. Bateragarri ez direnak, bertan behera geratuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 31n

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Alkatearen 7. Dekretua

Larrialdiko kontratazioa COVID-19aren ondoriozko alarma-egoeran

2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu zen Estatuan, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko.

Martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikulua premiazko neurriak ezartzen ditu COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko. Lege horrek administrazio publikoen kudeaketa eraginkorrerako neurriak jasotzen ditu, eta xedatzen du COVID-19ari aurre egiteko edozein neurri zuzen edo zeharkako harteak justifikatu egingo duela berehala jarduteko beharra, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan

aurreikusitakoaren babesean, eta larrialdiko tramitazioa aplikatuko zaiela COVID-19ari aurre egiteko pertsonen babes-premiei eta beste neurri batzuei erantzuteko egin behar diren kontratu guztiei, salbuespenezko araubidea aurreikusten baitu. Halaber, SPKLren 37. artikulua arabera, baimendu egingo da hitzezko kontratazioa. Hartara, kontratazio-organoak, kontratazio-espedienteak izapidetzeko betebeharrak gabe, agindu egin dezake gertaera konpontzeko edo gerora sortutako beharri erantzuteko behar den oro egitea, edo objektua askatasunez kontratatzea, osorik edo zati batean, lege honetan ezarritako betekizun formalak bete gabe, eta kreditu nahikoa egotearen beharrik gabe ere.

Hori guztia kontuan harturik, Toki Araubidearen araudiak aitortzen dizkidan eskumenez baliaturik, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 124. artikuluan xedatutakoarekin bat haxe

Ebatzi dut

Lehena. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 120.1 artikuluan aurreikusitako larrialdietarako tramitazioa aplikatzea, eta hitzezko kontratazioa ere baimentzea, alarma-egoera justifikatzen duten ekintzekin estuki lotutako beharretarako, edo interes orokorra babesteko zein oinarriko zerbitzuak mantentzeko ezinbestekoak diren beharretarako, eta zehazki kontratu hauetan aplikatzeko:

– Bere eginkizunen baitan gutxieneko zerbitzuak eman behar dituzten udal langile guztientzat banakoan babesarako elementuen hornidura.

– Tresna informatiko eta teknologikoen hornidura, baita horiek zerbitzu publikoetan ezartzeko beharrezko diren zerbitzuenak ere.

– Gizarte-larrialdi egoeran daudenentzako oinarriko hornidurak.

Edonola ere, eragindako zerbitzuak, kontratuaren arduradunak, txostena idatzi beharko du, arrazoituta premia alarma-egoera justifikatzen duten ekintzekin zuzenetan lotuta dagoela, eta ezinbestekoa dela interes orokorra babesteko, ondorengo kontrola egitea xede.

Bigarrena. Hornitzaileak Gasteizko Udalaren izenean aurkeztu beharko du dagokion faktura, eta deskribapenean "larrialdiko kontratua" adierazi, baita aurretiazko aurrekontuan ere, halakorik behar bada.

Hirugarrena. Ebazpen honen berri ematea udal sail guztiei, Kontu hartzaitzari eta diruzaintzari, jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioetarako.

Azken xedapena. 2020ko martxoaren 14tik egongo da indarrean, 463/2020 ED indarrean sartu zen datatik, eta alarma-egoera altxatzen den arte izango du eragina.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 6an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Alkatearen 8. Dekretua

Premiazko prebentzio-neurriak hartzea,
COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko

Azken asteetan, Gasteizko Udalak hainbat prebentzio-neurri ezarri ditu koronabirusa (COVID-19) hedatzearen aurrean herritarren osasuna babesteko, Espainiako Gobernuaren, Eusko Jauritzaren eta Osakidetzaaren ohartarazpenak aintzat hartuta. Alkatearen zenbait dekretutan jasoz joan dira neurri horiek 2020ko martxoaren 10az geroztik.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, bestetik, osasun larrialdia ezarri zuen 2020ko martxoaren 13an; horren ondorioz Euskadiko Babes Zibileko Plana aktibatu zen, eta lehendakariak bere gain hartu zuen plan horren zuzendaritza.

Aldi berean, 2020ko martxoaren 14ko BOEn (67. zenbakia) argitaratu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, zeinen bidez alarma egoera deklaratzeko baita COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko; martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen hori. 2020ko apirilaren 9an, Kongresuak alarma egoeraren bigarren luzapena onetsi zuen, apirilaren 26ra artekoa.

2020ko martxoaren 29an, berriz, 10/2020 Errege Lege Dekretua argitaratu zen, zeinaren bitartez baimen ordaindu berreskuragarria arautzen baitzen funtsezko zerbitzuetan ez diharduten besteren konturako langileentzat, hartara COVID-19 gaitzaren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna mugatu ahal izateko. Hori dela kausa, giza baliabideen alorrean aparteko neurriak hartu behar izan ziren 2020ko martxoaren 12an hartutakoen osagarritzat, komunitatearentzat funtsezkoak diren zerbitzuen funtzionamendua bermatzearen, eta horiek 2020ko apirilaren 6ko alkatearen 7. dekretuan jaso ziren.

Aipatutako baimena 2020ko apirilaren 9a arte egon da indarrean. 2020ko apirilaren 14tik aurrera berriro antolatu behar dira Gasteizko Udaleko giza baliabideak, baimen ordaindu berreskuragarriaren aldi bereziaren ondorengo alarma egoerara egokitzearen.

Hain zuzen ere, dekretu honetan jasotzen dira udal langileei 2020ko apirilaren 14tik aurrera aplikatuko zaizkien neurriak, baita azken egunetan hartutako beste batzuk ere, aurreko dekretuetan jaso ez zirenak.

Aurreko erabaki haietan adierazten genuenez, egoeraren premia zela eta, dekretu honetan jasotzen diren neurrietako batzuk iragarri eta aplikatu dira dagoeneko, baina beharrezkotzat jotzen da Alkatezaren erabaki betearazle batean jasotzea, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 36. artikulua ildotik. Hori dela eta, 8. dekretu hau ematen da, aurrekoen osagarri.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua arabera, beste batzuen artean eginkizun hauek betetzea dagokio alkateari: "b) Udalerriko politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; h) Kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea, eta i) Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea".

Xedatu dut

Lehena. Langileen alorreko neurriak baimen ordaindu berreskuragarriaren aldia amaitutakoan.

1. 2020ko apirilaren 14tik aurrera, udal plantilla osoa itzuliko da bere lanpostuaren zereginetara, 2020ko martxoaren 31ko Alkatearen 6. Dekretuan "ez funtsezkotzat" jo ziren edo gutxieneko zerbitzuetan dauden sail eta zerbitzuetako langileak barne, baina langileen presentzia fisikoa eta elkartzea gutxienera murriztuta.

Baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duen martxoaren 29ko Errege Lege Dekretua indarrean jarri aurreko egoera da funtsean.

2. Ahalik eta gehien erraztuko da telelana, eta ahal den neurrian mugatuko aurrez aurreko lana. Horretarako, pertsona batzuek aurrez aurreko lanak egingo dituzte sail bakoitzean ezinbestekotzat jotzen diren lanpostuetan, eta beste batzuk txandaka arituko dira, telelanean edo aurrez aurrekoan.

3. Giza Baliabideen Sailak eta dagozkien buruek emango dituzte lanera itzultzeko jarraibideak, une oro ezarritako segurtasun-neurriak (higienearekin zein distantzia fisikoarekin lotutakoak) bete daitezen bermatzearen.

4. Funtsezkoak diren lanpostu soziosanitarioak indartzeko planak erabateko lehentasuna izango du beste edozein hornikuntzaren aurretik. Orobat, indarrean jarraituko dute zainketen funtsezko lanpostuetan lizentziak hartzeko mugek; horrek ez du kentzen gerora beste neurri batzuk hartzea haiek egindako aparteko ahalegina arintzeko, esaterako, errefortzuak jartzea edo beste antolakuntza neurri batzuk hartzea, alarma egoerak irauten duen denboraren arabera.

Gainerako langileen kasuan, malgutu egin dira lizentzia eta baimenak.

5. Orain arte egin den bezala, beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak emango zaizkie udal zerbitzuei, horien beharra badute osasunaren arloko agintariek koronabirusarekin lotuta onesten dituzten jarduera eta prebentzio jarraibide eta protokoloen arabera.

Bigarrena. Gasteizko Udaleko lanpostuetan diharduten pertsona bereziki sentiberi buruzko neurriak.

Osasun Ministerioak landu duen “Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuentzako jardunbidea SARS-CoV-2arekiko esposizioaren aurrean” dokumentuaren arabera: “2020ko apirilaren 8an eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikoa kontuan izanik, Osasun Ministerioak gaixotasun haiek dituzten pertsonak jo ditu COVID-19arekiko bereziki sentiberatzat: diabetesa; gaixotasun kardiobaskularra, hipertentsioa barne; biriketako gaixotasun kronikoa, immunoeskasia, eta minbizia, tratamendu aktiboan; orobat, haurdun daudenak eta 60 urtetik gorakoak”.

Gasteizko Udaleko langileen kasuan, beharrezkotzat jotzen da neurriak hartzea COVID-19arekiko bereziki sentiberak diren pertsona horiek ahalik eta arrisku txikiena izan dezaten lanpostuan. Beraz, hau xedatu dut:

1. Giza Baliabideen Sailak jarraibideak eta jarduera-prozedura bat landuko ditu Osasun Ministerioak identifikatutako arrisku-egoeretako batean daudelarik Gasteizko Udalean lan egiten duten pertsonentzat, koronabirusaz kutsatzeko arriskutik babesteko behar diren prebentzio-neurriak hartzearen.

2. Bereziki, San Prudentzio egoitzako eta etxebizitza komunitarioetako teknikari eta osasun langileen ordez pertsona sentiberen taldeetan ez dauden langileak arituko dira larrialdi sanitarioaren egoerak irauten duen bitartean, baldin eta diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra — hipertentsioa barne—, biriketako gaixotasun kronikoa, immunoeskasia, eta minbizia —tratamendu aktiboan— diagnostikatu bazaie, haurdun badaude edo 60 urtetik gorakoak badira.

Hirugarrena. Laguntza psikologikoa COVID-19aren aurka lehen lerroan ari diren langileentzat.

1. Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren ekimenez, Babes Psikologikoko Taldea sortu da, udalaren zenbait baliabide eta programetan koronabirusaren pandemiaren aurka lanean diharduten udal profesionali zuzenduta.

2. Laneko Osasunaren Zerbitzuarekin koordinaturik, une hauetan esposizio handiena duten eta, horrenbestez, lehen une honetan laguntza psikologikoaren behar handiena izan dezaketen profesionalak identifikatu dira: San Prudentzio ALZiko, etxebizitza komunitarioetako eta Harrera Sozialerako Udal Zentroko zerbitzu sozio-sanitarioetako langileak.

3. Boluntarioek osatuko dute taldea, eta osasun-larrialdiaren aurkako lehen lerroan diharduten langileei babesa emateaz arduratuko da, baita laguntza behar dutelarik udalaren gizarte-zerbitzuetara jotzen duten pertsona eta familiekin jarduteko irizpide eta orientazioak eskaintzeaz ere.

4. Babes Psikologikoko Taldeak zenbait laguntza-ildo eskainiko ditu:

- Taldeko arta psikologiko birtuala, profesionali zuzendua.
- Taldeko arta psikologikoa, aurrez aurre, profesionali zuzendua.
- Banakako arta psikologikoa, telefono bidez, profesionali zuzendua.

– Profesionalentzako jardunbide eta orientabideak lantzea, eguneroko lanean pertsona eta familiekin telefonoz aritzerakoan lagungarriak.

– Familiei laguntzeko gida eta materialak lantzea.

5. Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailak kanpoko entitateetara jo ahalko du elkar-lanean aritzeko, Arabako Psikologoaren Elkargo Ofizialera, esaterako, eta hari aukera emango dio kasuak bideratzeko eta udalaren gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko.

Arabako Psikologoaren Elkargo Ofizialak materialak partekatuko ditu udal psikologoaren taldearekin, eta aholkularitza eskainiko dio.

Laugarrena. San Prudentzio egoitzarekin eta Aurora eta los Molinos etxebizitza komunitarioekin lotutako neurriak.

1. Koronabirusa detektatzeko testak egingo zaizkie San Prudentzio egoitzako erabiltzaile guztiei.

2. Telefono terminalez hornituko dira San Prudentzio ALZI eta Aurora eta Los Molinos etxebizitza komunitarioak, bertan bizi diren adinekoek bideo-deiak egin eta jasotzerik izan dezaten eta, hartara, senideak ikusi eta haiekin hitz egin.

Bosgarrena. "Udalaren opor jarduerak" programan izena emateko prozesua atzeratzea.

– Atzeratu egiten da "Udalaren opor jarduerak" programan izena emateko prozesua, zeina martxoaren 30ean hastekoa baitzen.

Seigarrena. Adinekoei aldian behin arreta eta jarraipena eskaintzeko "Zurekin gaude" programa luzatzea.

Alarma egoera ezartzeko dekretua eman zenetik, adinekoentzako zentro soziokulturaletako langileak buru-belarri aritu dira 1.200 erabiltzailearen egoera aldian behin jarraitzeko programa bat garatzen, eta astero deitzen diete nola dauden jakiteko, aholkuak emateko eta materialak (liburuak, denbora-pasak, ariketa kognitiboak eta abar) eskaintzeko.

Laguntzeko antolaketa handitzea erabaki da orain, beste 5.492 pertsonarengana iristeko. 70 urtetik gorako adinekoak izango dira, bakarrik bizi direnak eta gizarte-zerbitzuekin kontakturik ez dutenak.

Neurri hauek hartzea erabaki da:

1. Bi telefono-zenbaki (945 16 14 43 eta 945 16 16 09) egokituko dira adinekoentzako zentro soziokulturaletako profesionalen deiak har ditzaten, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 17:00etara, baita Aste Santuko jaiegunetan ere.

2. Telefono-zenbakia ezaguna bada, telefonoz deituko zaie 70 urtetik gorako adinekoei, haien egoeraz galdetzeko eta sostengua eskaintzeko, beharrezkoa bada.

3. Pertsona horien telefona zein den ez jakin arren helbidea ezaguna bada, informazio-dip-tiko bat bidaliko zaie etxera, konpainia edo laguntzarik behar izanez gero zein udal programa edo zerbitzutara dei dezaketen jakin dezaten.

Zazpigarrena. Doako aholkularitza zerbitzua Gasteizko merkatari, autonomo, mikroenpresa eta enpresentzat, administrazioek COVID-19aren krisian hartu dituzten neurri aringarrien inguruan.

1. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren ekimenez, doako aholkularitza zerbitzu integrala jartzen da Gasteizko merkatari, autonomo, mikroenpresa eta enpresen eskura, administrazioek COVID-19aren krisian hartu dituzten neurri aringarrien inguruan.

2. Udal arlo horretan ezaguera teknikoak dituzten zortzi pertsonak osatuko dute zerbitzua, eta administrazioek argitaratutako laguntzei buruzko informazioa eskainiko dute, egin beharreko izapideei buruzko argibideak eman eta horiek eskatzeko prozesuan sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

3. Kontsultak egiteko telefono-zenbaki bat (945 16 19 62) jarriko da, eta posta elektronikoz ere (promocioneconomica@vitoria-gasteiz.org) egin ahalko dira; kasu horretan, interesdunek telefono-zenbaki bat utzi beharko dute haiekin harremanetan jartzeko.

Zalantzei ahalik eta denbora laburrenean erantzuteko ahalegina egingo da.

Zortzigarrena. Online prestakuntza sustatzea udalaren ikastetxeetan eta prestakuntza zentroetan.

– Orain arte egin duten bezala, eta COVID-19aren eraginez itxita jarraitzen duten bitartean, Gasteizko Udalaren mendeko prestakuntza zentroak, eskolak eta akademiak (Luis Aranburu musika eskola, José Uruñuela dantza kontserbatorioa, Folklore Akademia, udalaren haur-eskolak, CETIC eta guraso-eskolak, besteak beste) ikasleei online prestakuntzako programak eskaintzen saiatuko dira, aurrez aurreko saioak bertan behera uzteak sortutako gabeziak arintzeko, ahal den neurrian.

Bederatzigarrena. VG-Biziz sarearen zigor-erregimena aldi baterako etetea.

Gasteizko Udalak hiriko hainbat lekutan instalatuta dituen bizikleta-aparkaleku seguruen sarearen (VGBiziz) gune batean bizikleta gordeta duten pertsonak bertan utzi ahalko dute alarma egoerak indarrean jarraitzen duen bitartean, zigorrik jaso gabe.

Hamargarrena. AMVISAK hartutako neurriak.

Gasteizen ematen duen zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko eta koronabirusaren hedapena eragozteko, AMVISAK zenbait neurri jarri ditu abian berak kudeatzen dituen arloetan, gobernu zentralak, Eusko Jaurlaritzak eta udalak ezarritako neurri eta arauak aintzat hartuz.

Zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzearren, neurri hauek hartu dira:

– Plantillaren birdimentsionamendua eta kontingentzia plana, hornidura eta saneamendu zerbitzuen jarraitutasuna bermatzeko.

– Martxoaren 9tik, familiei eta etxeko erabiltzaileei ez zaie etenik egingo ez ordaintzeagatik; martxoaren 13tik, industria eta/edo merkataritzako erabiltzaileei.

– Mantentze eta kontserbazio taldeek gorabeherak konpontzen jardungo dute: hodian hausturak, hornikuntza eta saneamendu sareko arazoak, etab.

– Uren kalitatea kontrolatzeko laborategiak hornitutako urak indarrean dagoen araudia betetzen duela kontrolatzen jarraituko du.

– Informazio sistematan bi lantalde eratu dira, bereziak, zerbitzua eskaintzea bermatzearren.

Merkataritzaren arloan:

– Merkataritza bulegoa itxita dago jendearentzat, baina telefonoz eta online eskaintzen da zerbitzua.

Prebentzioarekin, kontzilioarekin, telelanarekin eta giza baliabideen antolakuntzarekin lotutako neurriak:

– Funtsezko zerbitzuekin lotuta ez dauden langile asko etxetik ari dira, telelanaren edo teleprestakuntzaren bidez.

– Orobat, telelanean ari dira arrazoi medikoak direla kausa arrisku bereziko talderen batean sartuta dauden langileak.

– Bulego eta instalazioen garbiketa eta desinfekzioa areagotzea.

Gizarte eta aisialdi arloetako neurriak:

– Bertan behera utzi dira kanpoko ordezkari eta langileen bisitak enpresara, instalazioetara edo azpiegiturretara.

Hartutako neurriak egoki direla ikusirik, hau erabaki dut:

– AMVISari eskatzea orain arte hartutako neurriei eutsi diezaien, alarma egoerak indarrean jarraitzen duen bitartean; beste neurri batzuk ere proposatu litezke.

Hamaikagarrena. José Uruñuela udal dantza kontserbatorioarekin lotutako neurriak.

– José Uruñuela dantza kontserbatorioaren martxoko eta apirileko kuotak ehuneko 40 murriztea erabakitzen da.

Hamabigarrena. ARTIUMeko aparkalekua doan osasun eta asistentziaren alorretako langileentzat.

Alarma egoerak irauten duen bitartean, Artiumeko aparkalekua doakoa izango da Quirón Klinikari (Esperantza kalea) eta San Prudentzio egoitzari eta Los Arquillos eta Aurora etxebizitza komunitarioetan lan egiten duen ororentzat.

Hamahirugarrena. Simon Bolibar plazako areto bat aldi baterako prekarioan lagatzea COVID-19aren kontrako Maker Komunitateari.

3D-ko inpresioan aditu diren boluntarioek osatu dute koronabirusaren kontrako Euskadiko Maker Komunitatea, eta osasun arloko langileek berek baliozkotutako modelo batean oinarrituz hasi dira zipriztinen aurkako biserak fabrikatzen. Besteak beste, ingeniariak eta diseinuaren arloko profesionalak osatzen dute komunitatea, eta arnasketa-aparatu homologagarri baten bila ere ari dira.

Izan ere, boluntario talde horren lanak bolumen handia hartu du, eta leku bat behar zuten koordinatzeko eta produktuak eta material dohaintzak biltegitatzeko. Hori dela kausa, eta Gasteizko Maker Komunitateko boluntarioek berek eskatuta, hau erabaki dut:

1. Simon Bolibar plazako 7 zenbakiko aretoa —udalaren titularitatekoa— aldi baterako prekarioan lagatzea COVID-19aren kontrako Gasteizko Maker Komunitateari, COVID-19aren prebentzioarako osasun materiala ekoizten jarduten duten aldirako eta, gehienez, alarma egoera altxatzen den egunera arte.

2. PVCzko 7.000 lamina garden inguru ematea zipriztinen aurkako biserak fabrikatzeko.

Azken xedapena

1. Dekretu honetan jasotako neurri guztiak Gasteizko Udalaren webgunean argitaratzen diren unetik aurrera sartuko dira indarrean, lehenengo eta bigarren puntuetan jasotakoak izan ezik, horiek 2020ko apirilaren 14tik aurrera jarriko baitira indarrean.

2. Gaurdaino hartutako neurriek, dekretu honetan jasotzen direnekin bateragarri direnek, indarrean jarraituko dute. Bateragarri ez direnak, bertan behera geratuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 14an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Alkatearen 9. Dekretua

Premiazko prebentzio-neurriak hartzea,
COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko

Kide anitzeko organoen bilerak egiteko modua, aurrez aurre edo bideokonferentziaz.

2020ko martxoaren 17an, COVID-19aren eragina murrizteko prebentzio-neurriak hartzeko 3. alkate dekretua eman zen, osasun alarmak irauten duen bitartean batzordeak eratu eta egiteari buruzkoa.

Dekretu hartan batzorde eta osoko bilkuren deialdiak ahalik eta gehien murrizteko beharra aipatzen zen, eta deitzea ezinbestekoa izanez gero, presentzia fisikoa mugatzeko beharra, hasiera batean ez baikenuen bitarteko teknikorik bilerak urrutitik egin ahal izateko.

Geroztik, eta hilabete eskasa igaro bada ere, Udalak, gainerako administrazioek bezala, errotik aldatu behar izan ditu bere antolakuntza eta jardunbidea aparteko egoera honi erantzuteko.

Esaterako, ohartu gara bazirela gure eskura tresna teknologikoak kide anitzeko organoen bilerak bide telematikoz egin ahal izateko, baita formatu hori erabiltzea legitimatu eta gomendatzen zuten argudio faktiko eta juridikoak ere, kideen eskubide eta bermeei kalterik egin gabe; hartara, 2020ko martxoaren 27an, Eledunen Batzarrak eta Udalbatzak berak alde aurretik aho batez erabaki zutelarik, osoko bilkura bide telematikoz egin zen, udal honen historian lehena, eta Espainian modu horretan egindako lehenengoetako bat.

3. dekretu hura eman eta bi astea, COVID-19ari aurre egiteko aparteko neurriei buruzko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. azken xedapenak zalantza juridiko oro argitu zuen, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TJOL) 46. artikuluan apartatu berria (3.a) erantsi baitzuen, eta horren bidez lehen aldiz jaso da legean toki-erakundeetako kide anitzeko organoetan saio telematikoak egiteko aukera:

TJOLren 46.3 artikulua

3. Edonola ere, baldin eta aparteko egoeraren batek —ezinbesteko kasuak, arrisku kolektibo handia, hondamendi publikoak— toki erakundeetako kide anitzeko organoen aurrez aurreko saioen funtzionamendu normala eragozten edo nabarmen zailtzen badu, alkateak edo lehen-dakariak edo indarreko araudiaren arabera haren baliozko ordezkari denak egoera deskribatu denarekin bat datorrela uste duenean, bide elektronikoz eta telematikoz eratu ahaliko dira organo horiek, urrutitik, eta saioak egin eta erabakiak hartu, parte-hartzaileak Espainiako lurraldean badaude eta haien identitatea egiaztatuta badago. Orobat, saioak irauten duen bitartean haien arteko komunikazioa denbora errealean gertatzen dela bermatu behar da, eta behar diren bitartekoak jarri horien izaera publikoa edo isilpekoa bermatzeko, kasu bakoitzean legez dagokion moduan.

Ondorio horietarako, baliozko bitarteko elektronikoa izango dira audiokonferentziak, bideokonferentziak, edo beste sistema teknologiko edo ikus-entzunezko batzuk, egoki bermatzen badituzte segurtasun teknologikoa, kideen benetako partaidetza politikoa, eta eztabaidaren eta hartzen diren akordioaren baliozkotasuna.”

Premiazko prebentzio-neurriak hartzeko 2020ko martxoaren 17ko 3. alkate dekretuak, ordea, aurrez aurreko osoko bilkurak eta batzordeak egiteko hartu beharreko neurriak baino ez zituen aipatzen, hala saioen edukari nola batzordeak egiteko lekuari eta horien osakerari dagokienez.

Hartara, 2020ko martxoaren 17an Eledunen Batzarrak aho batez hartutako erabakia betez, udalbatzaren batzordeen osaketa talde bakoitzeko kide bakarrera murriztea ebatzi zen, eta boto haztatuko sistema erabiltzea, une oro distantzia fisikoko osasun neurriak gordetzearren.

Osoko bilkurei dagokienez, saioak Goiuri jauregiko Martin de Salinas aretoan egitea erabaki zen, distantzia neurriak betetzearren.

Aurreikuspen horiek baliagarriak dira alarman egoerak eta itxialdiak irauten duten bitartean aurrez aurreko saiorik egiten bada; hala ere, komenigarritzat jo da berariaz kontuan hartzea denbora horretan batzordeen, Udalbatzaren eta Eledunen Batzarraren saioak bideokonferentziaz egitea, baita kide anitzeko beste organo batzuenak ere, kontratazio mahaienak, esaterako.

Gerora, Eledunen Batzarrak 2020ko apirilaren 15ean eta 20an egindako bileretan aho batez erabaki zen ezen, egoera honek irauten duen bitartean, osoko bilkurak eta batzordeen bilkurak bideokonferentziaz egingo direla nagusiki, baina aurrez aurreko saioak egiteko aukeran baztertu gabe.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124 artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateari dagokio, besteak beste, "b) udal politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; dena den, Tokiko Gobernu Batzarraren laguntza izan dezake zuzendaritza politikoa"; eta bereziki, "h) larrialdi egoera berezietan neurri egoki eta beharrezkoak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea".

Eskumen horien arabera,

Xedatu dut

Lehen xedapena. Kide anitzeko organoen bilerak egiteko modua, aurrez aurre edo bideokonferentziaz, osasun alarmaren egoerak irauten duen bitartean.

1. Osasun alarmaren egoerak irauten duen bitartean, Udalbatzak, batzorde iraunkorrek edo bereziek, Eledunen Batzarrak edo udalaren kide anitzeko organo orok aurrez aurre edo bideokonferentziaz egin ahalko dituzte bilkurak.

2. Kide anitzeko organoaren lehendakariak erabakiko du nola egingo den saioa, aurrez aurre ala bideokonferentziaz, eta berariaz zehaztu beharko da deialdian.

3. Udalbatzak, batzordeek edo Eledunen Batzarrak bideokonferentziaz egiten dituzten bilkurretan Udalbatzaren Araudi Organikoan jasotako arauak bete beharko dira osaerari, quorumari, bozketa-sistemari eta abarrei dagokienez, formatu horrek ezinbestean eskatzen dituen egokitzapenak eginda.

Kide anitzeko beste organo batzuen —kontratazio mahaia, kasu— bilkurak bideokonferentziaz egiteko haien araudiari jarraituko zaio.

4. Udalbatzaren eta batzordeen bilkurak aurrez aurre egiten badira, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko premiazko prebentzio-neurriak hartzeko 200ko martxoaren 17ko 3. alkate dekretuan ezarritakoa aplikatuko da, hala saioak egiteko lekuari nola batzordeen boto ordezkatuari eta quorumari dagokienez.

Bigarren xedapena. Eledunen Batzarrak 2020ko apirilaren 15ean eta 20an proposatu eta aho batez onetsitako neurri hauek egiten duen hurrengo bilkuran jakinaraziko zaizkio ofizialki Udalbatzari.

Azken xedapena. Dekretu hau dataren egunean jarriko da indarrean, baina baliteke maila bereko edo goragoko beste erabaki eta neurri batzuk hartzea bilerak deitzeari oro har edo kide anitzeko administrazio-organoen bilerak deitzeari bereziki dagokienez.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 20an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Alkatearen 11. Dekretua

Normaltasun berrira igarotzeko premiazko prebentzio-neurriei buruzkoa

2020ko martxoaren 10etik, hainbat prebentzio-neurri ezartzen joan da Gasteizko Udala herritarren osasuna babesteko, COVID-19 koronabirusaren hedapena zela eta, Espainiako Gobernaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetza ohartarazpenak aintzat hartuta. Alkatearen hamar dekretutan jaso dira neurri horiek, zeinen bitartez premiazko prebentzio-neurriak hartu baitira, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko.

Ugari eta era askotakoak izan dira hilabete hauetan pandemiaren ondorioz erakundeetatik hartu diren garrantzi handiko erabakiak.

Izan ere, gogoratu beharra dago Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak osasun-larrialdia deklaratu zuela 2020ko martxoaren 13an, eta, hortaz, Euskadiko Babes Zibilerako Plana aktibatu zela eta lehendakariak berreskuratu zuela plan horren zuzendaritza.

Gerora, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua eman zen, zeinen bidez alarma egoera deklaratu baitzen COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko —gerora, martxoaren 17ko Errege Dekretuaren bitartez aldatu zen hori—.

Lau bider luzatu da alarma-egoera; azkenekoz, maiatzaren 8ko 514/2020 Errege Dekretuaren bitartez, 2020ko maiatzaren 24ko 00:00ak arteko indarraldiarekin.

Hala ere, egoeraren bilakaera onari esker, une honetan, Estatu osoan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bitartez —mugikortasuna eta kontaktu soziala murrizteko— ezarritako aparteko neurriak apurka-apurka gutxitzen joateko prozesuari ekin zaio. Horrela, Normaltasun berrira igarotzeko plana onetsi zuen Ministro Kontseiluak 2020ko apirilaren 28an, non ezartzen baitira normaltasuna lotzeko parametro eta tresna nagusiak. Lau fasetan —0 fasetik 3. fasera— taxututa dagoen prozesu horrek graduala izan behar du, behar diren orientazio-aldaketetara egokitzeko modukoa, datu epidemiologikoen bilakaeraren eta hartutako neurrien inpaktuaren arabera.

2020ko maiatzaren 11tik, Euskal Autonomia Erkidegoa plan horren 1. fasera igaro zen, maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduarekin bat etorritik —alarma-egoera deklaratzearekin batera ezarritako nazio eremuko zenbait murriztapen malgutzekoa, normaltasun berrirako trantsizioko planeko 1. fasearen aplikazioaz—, nahiz eta murrizketa gehigarriren batekin izan, Ministerioaren agindu horren 2.1 artikuluekin ildotik.

Ko-gobernantzaren filosofiaren barruan, aipatutako Ministerioaren aginduaren ondoren, Lehendakariaren maiatzaren 10eko 8/2020 Dekretua eman zen, zeinen bidez 1. fasea aplikatze aldera Espainiako Gobernuarekin adostutako aldaketak, zabaltzeak eta murrizketak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan aplikatzeko arauak ezartzen baitira.

Bestalde, berriki eman diren xedapen horiek eta, oro har, 1. faseak berekin dakarren prebentzio-neurrien deseskaladak gomendagarri egiten dute udal honek gizarte-errealitate berri horretara egokituko diren zenbait neurri hartzea, Estatuko eta autonomia-erkidegoko xedapenekin bat etorritik.

COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko premiazko prebentzio-neurriak hartu zireneko Alkatearen 4. dekretuan —2020ko martxoaren 18koa—, 2020ko martxoaren 16tik aurrera lurrazaleko aparkaldi mugatuko zerbitzua (TAO) bertan behera uztea erabaki zen, baina gaur egun hiri-mugikortasuna areagotzea aurreikusten da, eta zerbitzu hori berriro martxan jartzea gomendatzen du horrek.

Era berean, premiazko prebentzio-neurriak hartzeko Alkatearen 6. dekretuaren hirugarren xedapenean, bertan behera utzi ziren, aldi baterako, bide publikoan terrazak instalatzeko gaitzen duten lizentziak oro, eta, aldi berean, bertan behera utzi zen jabetza publiko lokalaren erabilera pribatibo eta ustiapen bereziagatik ordaindu beharreko tasaren zerga-kuota ordaintzeko obligazioa. Euskadiko autonomia-erkidegoa 1. fasera igarotzearekin, hori da errealitate berrira doitu beharreko neurrietako beste bat.

Gauza bera esan liteke bere garaian hartu ziren beste zenbait neurriren gainean, berrikusi egin behar baitira orain, hala nola VG-Biziz sarearen erregimen zigortzailea aldi baterako etetea, Alkatearen 8. dekretuan, zeinek gaur egun ez baitu zentzurik, hirian barrena zirkulatzea posible denez, aparkaleku horietatik bizikleta hatzeko.

Bestalde, alarma-egoeraren luzapenak, begi bistako antolakuntza-arrazoiak direla eta, barneko hautaketa-prozesuak gainditu zituzten pertsonak beren lanpostuetan hasteko unea geroratzera behartzen du.

Era berean, beharrezkoa suertatzen da hileta eta ehorzketetara joateko erregimena maiatzaren 9ko Osasun Ministerioaren SND/399/2020 Aginduaren 8. artikuluan xedatura moldatzea.

Aurreko akordioetan adierazi bezala, egoeraren premia zela eta, dekretu honetan jasotzen diren neurrietako batzuk dagoeneko iragarri eta aplikatu dira, baina beharrezkotzat jotzen da Alkatearen erabaki betearazle batean jasotzea, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 36. artikulua ildotik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua arabera, beste batzuen artean eginkizun hauek betetzea dagokio alkateari: b) Udalerriko politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; h) Kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea, eta i) Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea.

Xedatu dut

Lehen xedapena. TAOren etenaldia altxatzea.

1. Lurrazaleko aparkaldi mugatuaren erregulazioaren etendura altxatzea erabakitzen da, bai TAOri dagokionez, bai Geltoki plazako eta Aldabeko gizarte-etxe aparkaleku bereziei dagokionez.

Bigarren xedapena. Ostalaritza-terrazak berriro irekitzea.

1. Altxatu egiten da lizentzien aldi baterako etenaldia eta, hortaz, ostalaritza-establezimendu eta jatetxeetako terrazak irekitzea baimentzen da, maiatzaren 9ko Osasun Ministerioaren SND/399/2020 Aginduan ezartzen diren mahai-portzentaje eta baldintzekin.

2. Altxatu egiten da jabetza publiko lokalaren erabilera pribatibo eta ustiapen bereziagatik ordaindu beharreko tasaren likidazioaren etenaldia, eragindako ostalaritzako eta jatetxeetako terrazen instalazioari dagokionez —likidazioen zenbatekoa baimentzen den benetako okupazioaren arabera izango da—.

3. Mahaitxoaren lizentziaren titularrei aukera emango zaie kale, plaza, ibiltoki eta erabilera publikoko gainerako espazioetan terraza instalatzeko azalera handitzeko, orain okupatzen duten azalera bikoizteraino, eta mahaitxoaren kopurua handitzeko, Osasun Ministerioaren SND/399/2020 Aginduak ahalbidetzen duen kopuruan, baldin eta mahaien eta erabilgarri dagoen azalaren artean ezartzen duen proportzioa errespetatzen bada, lehendik baimenduta duen mahaiaren kopurua gainditzen ez bada eta oinezkoentzako lekua ere proportzioan handitu ahal bada terraza kokatuta dagoen bide publikoaren zatian.

Terrazaren azalera handitu ahal izateko, lizentziaren titularrek aurretiko komunikazioa aurkeztu beharko dute udalean, eta bertan zehaztuko dute zenbateko azalera handitu nahi duten (okupatzen duten espazioaren ehuneko 100 gehienez) eta zenbat mahai dagozkion handitze horri; egin nahi duten handitzeari eskusiboki dagokion plano ere erantsi beharko dute.

4. Aurretiko komunikazioa aurkeztea beharrezkoa da espazio publikoaren aprobeixamendu gehigarriaz baliatu ahal izateko, eta ez da udalaren erantzun ofizialik beharko gauzatu ahal izateko.

5. Terrazak hartzen duen lekua handitzeko, edozein kasutan, Gasteizko ostalaritza-establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantzaren 5.etik 7.era arteko artikuluetan ezarritako baldintza teknikoak bete beharko dira.

6. Espazioa handitzeko aukera 2020ko irailaren 30era arte egongo da indarrean, edo COVID-19aren prebentziorako ezarritako mugapenak bukatu arte, nahiz eta data hori baino lehen ebazpen honetan ezarritako erregulazioa indargabetzen duen beste araurik eman ahal izango den.

Hirugarren xedapena. Hileta eta ehorzketetara joateko erregimena.

1. Alkatearen 6. dekretuaren bidez —2020ko martxoaren 31koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea— ezarri zen hiletetara joateko erregimena aldatzen da, eta, Osasun Ministerioaren maiatzaren 9ko 399/2020 Aginduan xedatutakoaren arabera arautzen, era honetan:

— Instalazio publiko edo pribatuetan gorpu-beilak egitea baimentzen da, gehienez hamabost pertsona elkartzen direlarik aire zabalean eta hamar leku itxietan.

— Ehorzketa edo agurra emateko zeremoniako segizioan gehienez ere hamabost pertsona bildu daitezke, senide eta pertsona hurkoen artean. Gainera, gurtza-ministroren (edo norberaren erlijioaren arabera horren parekideren batek) lagundu ahalko du pertsona zendua agurtzeko hileta-errituetan.

— Edonola ere, errespetatu egin beharko dira COVID-19a ez kutsatzeko asmoz osasun alorreko agintariek emandako segurtasun- eta higiene-neurriak, bi metroko segurtasun-tarteari, eskuen garbiketari eta arnasketa-protokoloari dagokienez.

2. Hilerrien itxitura altxatzea erabakitzen da, irekita egongo baitira jendearentzat, ohiko ordutegian.

Laugarren xedapena. VG-Biziz sarean erregimen zigortzailearen aldi baterako etenaldia altxatzea.

1. Gasteizko VG-Biziz bizikleta-aparkaleku seguruen zerbitzuari dagokion zigor-erregimenaren etenaldia altxatzea erabaki da.

Bosgarren xedapena. Martxan dauden udalaren hautaketa-prozesuen inguruko neurriak.

1. 2017-2018 LEP. A1 (A) eta A2 (B) taldeak. Praktikaldiko funtzionario gisa lanpostuaz jabetzeko erreferentzia-data 2020ko irailaren 15era aldatzen da.

2. 2018-2019 LEParen deialdia. C1, C2 (D) eta E taldeak. Deialdia diseinatu eta negoziatzeko fasearekin jarraitzen bada ere, eskabideak aurkezteko epea ez da izango, inola ere, 2020ko urriaren 1a baino lehenagokoa.

3. Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko barne-sustapena. (Ofizialordea eta kaboa).

— Kaboa. Deialdia egiteke geratzen da, hirugarren ariketako proben zatirako. Egoerak aukera ematen duenean egingo da deialdia.

— Ofizialordea. Laster argitaratuko dira behin-behineko emaitzak. Nolanahi ere, alegazioak aurkezteko epeak zabalik egongo dira administrazio-epeen etenaldia dekretatu den aldia bukatu arte.

4. Zerbitzu-eginkizunak eta barne prozesuak. Eskabideak aurkezteko epeak baldintzatuta geratzen dira, administrazio-epeen etenaldia noiz bukatzen den ere. Etenaldiaren aurreko deialdiarako, geratzen diren egun baliodunak izango dira, gehienez bost, etenaldia bukatzen denetik. Aldi horretan argitaratzen diren deialdiei dagokienez, bost egun baliodunekoa izango da epea, etenaldia bukatzen denetik.

Seigarren xedapena. Auzien prebentzioa.

1. Aholkularitza Juridikoaren 2020ko apirilaren 20ko txostenaren arabera, sail, erakunde autonomo eta udal sozietate bakoitzak, Aholkularitza Juridikoarekin elkarlanean, alarma-egoeraren ondorioz erreklamazioei, aurkaratzei eta besteri dagokienez aurreikusten diren egoeren aurreikuspena egin beharko du, eta egoera horiei aurre egiteko baliatu ahal izango diren irizpideak finkatu beharko ditu.

Xedapen indargabetzailea

1. Indargabetuta geratzen dira COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko premiazko prebentzio-neurriak hartzeko Alkatearen dekretuetan jasotako neurriak, hemen bildutakoen kontrako diren edo horiekin kontraesanean daudelarik.

2. Bereziki —ez baita erabateko zehaztapena—, indargabetuta geratuko dira xedapen hauek:

— Alkatearen 2. dekretuaren —2020ko martxoaren 13koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko— zortzigarren xedapena.

— Alkatearen 4. dekretuaren —2020ko martxoaren 18koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, COVID-19 koronabirusaren eragina murrizteko— laugarren xedapena.

— Alkatearen 6. dekretuaren —2020ko martxoaren 31koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea— hirugarren xedapena.

— Alkatearen 8. dekretuaren —2020ko apirilaren 14koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea— bederatzigarren xedapena.

Azken xedapena. Indarrean jartzea

1. 2020ko maiatzaren 11ko 00:00etan jarriko dira indarrean neurri hauek.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 11n

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE